



“Urkamendiak badauka, egiazki, hunkitu egiten duen zer edo zer, ageri delarik hor, zutik eta tinko. Gillotina begi bistan eduki ez den bitartean ukan liteke halako indiferentzia bat hiltzeko zigorraz, ez erabakitzea, bai eta ez esatea, baina halako bat ikusiz gero, bortitza izaten da durduzamendua, deliberatu egin behar da eta esku hartu alde edo aurka. Batzuek miretsi egiten dute, De Maistre-k bezala, besteek higuin dute, Beccaria-k bezala. Gillotina legearen gauzatzea da; mendekua du izena; ez da neutroa, eta ez dizu uzten neutral izaten. Ikusten duena lazturarik misterioetsuenaz da lazten. Arazo sozial guztiek ebakigailu horren inguruan dute galdera puntua. Urkamendia ikustate bat da. Urkamendia ez da oholtza bat, urkamendia ez da makina bat, urkamendia ez da zurez, burdinaz eta sokaz egindako mekanika geldi bat. Iduri luke ez dakit zer ahalmen ilun daukan izaki gisako bat; iduri luke oholtza horrek ikusi egiten duela, mekanika horrek ulertu egiten duela, zur horrek, burdina horrek eta soka horiek nahikari bat dutela. Presentzia horrek arima sartzen duen gogoeta ikaragarrian, urkamendia izu-emaile ageri da, eta egiten duenaren jabe. Urkamendia borroaren gaiztakidea da; irentsi egiten du; haragia jaten du, odola edaten du. Urkamendia epaileak eta zurginak jaso duten munstroa bezalakoa da, eman dituen heriotzez egindako bizitza izugarri batean bizi den espektroa dirudi.”

Urrikalgarriak, Lehen zatia, 1. liburukia, 4. atala, «Eginak, esanen antzeko».

Gilotinaren deskribapena exekuzio baten barruan kontatzen da, Myrel apezpikuak etorkizuneko berrerorlea ordezkatu eta kondenatu bat lagundu nahi izan zuelarik. Gertaera honetan sortutako bi bakarrizketa tristeetako batek, narratzailearen esanetan bere arrebarengandik hartutakoak, heriotz zigorraren baliagarritasuna dudan jartzen du, “heriotza ez da Jainkoarena baino” esaten baitu. Hugok pasarte hau idatzi zuen garaian, erbestean egindako eranskina delarik, hierarkia katolikoa iritzi honetatik oso urrun zegoen.



Margolana, « Justitia », Victor Hugo © PMVP



1860

Victor Hugo, egile ezezagun baten argazkia, 1860. MVH ©Jean Vigne et PMVP

ZIGORRAREN